

ADOPTATUTAKO HAURREN AURKAKO DISKRIMINAZIO JARRERAK AURREZAINDUZ



AURKIBIDEA

Aurkezpena.....	4 5
Mingarriak diren gauzetaz mintzatzen...indartsuago egon zaitezzen laguntzeko.....	6 7
Ritxarrek, harresetu eta jo egiten du.....	8 9
Katia tentela eta itsusia del uste du.....	10 11
Nereak defenditu eta laguntza eskatzen du.....	12 13
Denak du izen bat.....	14 15
Gure ezberdintasunengatik zirikatatuak izateak ematen digun mina.....	16 17
Bizkaiako ume adoptauek arrazakeria, xenofobia eta diskriminazioari buruz diotena.....	18 19
Nola erantzun du bakoitzak?.....	20 21
Zein erantzun uste dugu ongi dagoela eta zein oker.....	22 23
Laguntza eskatzen ikasten.....	24 25
Nork pentsatzen du zer...?.....	6 7
Egizu zeuk Ritxar, Katia eta Nerearen komikia.....	28 29
Zer egin zure desberdintasunak iraintzeko erabiltzen dituztenean?.....	30 31 32 33
Helbideak.....	34

Argitarapena: Agintzari Sociedad Cooperativa de Iniciativa Social eta Ume Alaia Bizkaia

Diseinua: Carlos Múgica

Laguntzailea: Bilbao Bizkaia Kutxa

ISBN:

AURKEZPENA

Kaixo neska-mutilak:

Zuek bezala adoptatuak izan diren haurrei zuzendutako ADOPTIA gida aurkezten dizuegu. Honetan, Ritxar, Katya eta Nerearen historien bidez azaldu nahi dizuegu ume askok batzuetan besteen mespretxua eta irainak jasan behar dituztela, azal kolore ezberdina izateagatik, adoptatuak izateagatik edota arraza anitzeko familia baten kide izateagatik.

Honelako egoerak bizi dituzten haur askok ez diete adopzio gurasoei esaten eta isiltasunean jasaten dituzte. Gida honetan Ume Alaia Bizkaia elkarteko umeekin burututako lanaren emaitzak aurkezten dizkizuegu. Lehenengo momentuan galdeketa baten bidez honelako egoerak bizi izan dituzten edo ez esan ziguten; ondoren talde bat eratu zen honelako bizipenak eta hauen aurrean zer egin daitekeen elkarbanatzeko. Azkenik, informazio guztia batu dugu gida honetan, zuen gustokoa izango delakoan eta zuen familiarekin irakurri eta pentsatu ahal izango duzelakoan. Familia guztia prest egoten eta zer egin daitekeen jakiten lagunduko dizue.

Lan hau Ume Alaia Bizkaia eta Adoptia zerbitzuak, BBK-Bilbao Bizkaia Kutzaren lankidetzarekin, 2008tik burututako ekimenaren emaitza da. Esperientzia aberasgarria izan da eta adopzioarekin harremanetan gauden guztioi adoptatutako ume eta gazteei zuzendutako diskriminazio jarrerak aurrezaintzen laguntzea espero dugu.

Gustokoa izatea eta ikastetxeko kideekin, lagunekin eta familiarekin konpartitzea espero dugu.

Bilbon, 2010eko azaroak 24.

UME ALAIA BIZKAIA



SERVICIO ADOPTIA



LAGUNTZAILEA:

BILBAO BIZKAIA KUTXA



HINGARRIAK DIREN GAUZETAZ HINTZATZEN... INDARTSUAGO EGON ZAITEZEN LAGUNTZEKO

Adoptatutako ume asko beste herrialdeetan jaio gara, gaurko etxeetatik oso urrүн.

Hemengoak garela badakigu baina batzuek ez daukagu oso argi eta ezberdinak eta arraroak sentitzen gara:

- Adoptatuak izan gara.
- gure familia eskolako beste umeen familietatik ezberdina da.
- gure azala, begiak edo sudurra hemengo pertsoek dituztenetatik ere oso ezberdinak dira.



Fisikoki ezberdinak gara eta askotan zaila da gainontzeko gauzetan berdinek garela pentsatzea.

Ikastetxean, kalean eta parkean ume askok ezberdinak izateagatik bromak, txistek eta txantxak egiten dizkigute. Haserretzen gaituzten gauzak esaten dituzte, txantxak izateari utzi eta irainetan bihurtzen dira.



GARRANTZITSUA DA!

Norbait adoptatzea besteak bezain hemengoak egitea suposatzen du baina horrek ez du esan nahi guztiz berdinek izatea.
Nire adopzio amak dio ezberdina izatea ez dela txarra, baina zaila da, askotan min egiten dizutelako.
Gida honekin indartsuago egoten eta erasotzen zituztenean erantzuten jakiten lagundu nahi dizugu.

RITXARREK, HASERRETU ETA JO EGITEN DU

Ritxarrek 9 urte ditu, Errusian jaio zen, 4 urte zituenean adoptatu zuten, Durangon bizi da. Ume alai, maitabera eta eskuzabala da, baina urdurri jartzen denean asko haserretzen da eta kontrola galtzen du. Gero beti damutu egiten da.

ZUI ERRUSIAR MADARIKATUA, ADOPTATU ZIKINA, TRANPATI, JOAN ZAITEZ ZURE HERRIRA ETA PAKETAN UTZI!!


3 seg. beranduago

NI EZ NAIZ ERRUSIARRA, NI DURANGOKOA NAIZ, IKUSIKO DU HONEK... NIRI BAKARRIK EGITEN DIDAZU ERRIETA.

ASTE OSOAN JOLASTORDU GABE ZAUDE ZIGORTUTA ...MILAKA BIDER ESAN DIZUT EZ DUZULA JO BEHAR... EZIN ZARA HAIN GAIZTOA IZAN... HORRELA JARRAITUZ GERO EZ ZARA BIZITZAN INORA HELDUKO... ZURE BURUA KONTROLATU BEHAR DUZU...HORRELA EZ ZAITU INORK MAITEKO... AZKEN ALDIA IZAN DADILA!

Zein bizitza nazkagarria. Nik bakarrik jasotzen ditut zigorrak eta errietak.

Ritxarek gogor bat sartuko du eta Alexekin, egiten du estropozu nahi gabe. Alexek nahita egiten duela uste du.



KATIA TENTELA ETA ITSUSIA DEL USTE DU

Katiak, 9 urte ditu, Colombian jaio zen, 5 urte zituela izan zen adoptatua, Bilbon bizi da. Zintzoa, atsegina, azkarrag, beltzarana eta poliña da. Baina bere burua zaintzea eta pentsatzen duena esatea kosta egiten zego. Gaur Katiak "Mateko" azterketa dauka, atzo amarekin ikasi zuen. Lasai dagoenean emaitza onak lortzen ditu.



Katia bere gelako neskato bizkorrena da korrika egiten, eta horrexegatik Irunek, inbidia dio. Gaur Katiak Irune baino bizkorrago egin du korrika. Irunek amorrua ezin izan du irentsi eta esan dio...

KENDU ZAITEZ
ERDITIK BELTZ
ZAZTARRA

10 seg
berri-
dunago



Ez dut etxean ikasitako ezer ere gogoratzen, etxean Arrieta hedera egingo didate eta ama triste jarriko da.

TENTELA ETA
ITSUSIA NAIZ
EZ DUT EZER-
TARAKO BALIO



BERRIRO ERE HUTS EGIN DUZU. BAINA ATZO IKASGAIA BAZENEKIEN... EZ DAKIT ZER EGINGO DUDAN ZUREKIN... AMARI BERRI EMAN BEHARKO DIOT... ARRETA GEHIAGO JARRI ETA AHALEGIN GEHIAGO EGINGO BAZENU GAINDITUKO ZENUKE...ALABA, AHALEGINDU ZAITEZ! JAKINGURA GEHIAGO BAZENU...

ITSUSIA NAIZ,
INORK EZ NAU
GUSTOKO,
ZEIN BIZITZA
PENAGARRIA,
HONETARAKO
HOBE HIL.



NEREAK DEFENDITU ETA LAGUNTZA ESKATZEN DU

Nereak, 10 urte ditu, Txinan jaio zen eta bi urte eta erdirekin adoptatu zuten, Santurtzin bizi da. Ikasle ona da, musika eta dantza ditu gustoko, Askotan jaiotzeko familian pentsatzen du eta laguntza eskatzen eta gauza hauei buruz aita eta amarekin hitz egiten ikasi du.

TXINATAR HORI ZIKINA, ZU EZ MAITATZEA ETA ABANDONATZEA EZ DA HARRITZEKOA, MARISARJENTUA ZARELAKO.

MAIKA ESAN BERRI DUZUNA EZ ZAIT GUSTATU ETA GAIZKI DAGO ESANDAKOA ARRAZISTA DELAKO.

IRAINTZEN ZAITUZTENEAN BERRI EMAN BEHAR DIDAZU GAUZA ARRAZISTAK ESATEN DIZKIZUNAK IKUSIKO DU ETA...
IRAINTZEN ZAITUENA SALATZEA ONDO DAGO, NAGUSIEK ZU ZAITZEXO ESKUBIDEA DUZU... EZ ZAITEZ INOIZ ISILDU... BETI DEFENDATUKO ZAITUGU

AMAK ETA IRAKASLEAK ULERTZEN NAUTE.

ASKI DA, EZ DAGO ESKUBIDERIK

Gelako beste neskekin emanaldi baterako dantza prestatzen. Maika haserretu egiten da Nereak agintzen duelako, ondoren Maikak esaten dio...

3 seg
berri-
dago

DENAK DU IZEN BAT...

ZEIN IZEN DUTE ADOPTATUTAKO UHEEI MIN EMATEN DIZKIGUTEN GAUZEK?

Arrazakeria itxura fisiko ezberdina izateagatik (begi txinatarrak, azal beltzarena edo beltza, ile iluna edo ilehoria) iraintzen zaituztenean eta min emateko egiten dutenean da.

Xenofobia beste herrialde baten jaioa izateagatik iraintzen zaituztenean, herengoa ez zarela pentsa dezazun eta min emateko esaten dizutean da.

Diskriminazioa adoptatua zarela eta horregatik balio gutxiago duzula edota zure gurasoak benetakoak ez direla esaten dizutenean da.



HOBETO ULERTZEKO:

Idatz itzazu bizi izan dituzun arrazakeria, xenofobia edo diskriminazio egoerak (aita eta amari galdetu diezaiekezu):

ARRAZAKERIA

XENOFOBIA


DISKRIMINAZIOA

GURE EZBERDINTASUNENGATIK ZIRIKATUAK IZATEAK EMATEN DIGUN MINA

BOKALAK GALDU DIRA

Hitzak osatu falta diren bokalekin

D _ SKR _ M _ N _ Z _ _ _
 _ RR _ Z _ K _ R _ _ _
 X _ N _ F _ B _ _ _



ZER EGIN HAINBESTE PISUKO ZAHAREKIN?

- Gure motxila badator minez beteta
- Arrazakeriak, xenofobiak eta diskriminazioak gure min eta sufrimendu zama handiagoa izatea eragiten dute.
- Beti, beti, beti nagusei eskatu beharko diegu laguntza, zaindu gaitzaten, bakarka ezin izando diegulako aurré egin.
- Batzuetan ez gara saltasen edo laguntza eskatzera ausartzen, baina egin beharko dugu horrenbeste ez sufritzeke.
- Askotan esaten dugu ez zaigula axola besteek gure azal, begi, sudur eta beste ezaugarri ezberdinengatik adarra jotzea. Baina ez da egia. Isilean eta inor konturatu gabe asko sufritzen dugu.
- Besteek honelako gauzak esaten dietela gurasoei kontatzen badiete, hauek haserretu edo triste jarriko direla, uste dute ume askok. Arduratu ez daitezela isildu eta isilean jasaten dituzte horrelakoak. Hau ez da batere ona.
- Babestuak izateko eta hitzekin, txantxekin edo irgin arrazistekin inork ez min emateko eskubidea dugu. Adopziozko gurasoak baino nor hobe laguntza eskaintzeko?
- Aita edo ama arduratu egiten badira zuek norbaitek txantxa arrazista egin dizuela, esan diezuelako, seinala ona da. Zuen gurasoei ere axola die eta min ematen die beste ume edo pertsonak zurrunmuru arrazistak esatea, arrazismoaren biktimak dira baita ere.

BIZKAIKO UME ADOPTAUEK ARRAZAKERIA, XENOFOBIA ETA DISKRIMINAZIOARI BURUZ DIOTENA

HAUXE DA ESANDAKOA:

10etik 7k jasan ditugu azala,
begiak, ilea... kolore edo itxura
ezberdina izateagatik irainak
(ARRAZAKERIA)



10etik 7ri esan digute gure ama
edo familia benetakoa ez dela
(XENOFOBIA)




10etik 6ri adopzioa txarra dela
sentiarazi digute edota
adoptatuak izateagatik iraindu
gaituzte (DISKRIMINAZIOA).



ZUK ZER DIOZU?

Eskolan edo kalean norbaitek zure azalaren kolorea, begiak, ilea, jatorrizko herria dipela eta, zure guraspak benetakoak ez direla edo adoptatua izan zarela esan dizutela, mina eragin dizun aldi bakoitzeko marraztu ezazu, haserre-aho bat. Aurpegi gehiago behar badituzu marraztu, eta min handia eman dizun egoeraren bat kontatu nahi badiguzu idatz itzazu hemen...



AURPEGIAK MARGOTU:

- Aurpegiak hurrengoko moduan margotu :
- Haserre aurpegia gorrix arrazakeria bada
 - Haserre aurpegia urdinez xenofobia bada
 - Haserre aurpegia berdez diskriminazioa bada.

NOLA ERANTZUN DUBAKOITZAK?

ERRONKA:

Hurrengoko galderak erantzun:

Nor haserretu da, jo du eta zigortu dute?

Nor tristetu da eta guztia ahaztu du?

Nor defendatu da eta laguntza eskatu du?

Nork aurkitu du konponbide hobereana?

Nork beharke du denbora gehiago konponbidea aurkitzeko ez diolako inori ezer ez esan?



KONTAIGUZU ZUK EGITEN DUZUNA

Borobil batekin seinalatu honelakoak gertatzen zaizkizunean zuk egiten duzunera gehien hurbiltzen den aurpegia :

Ume batek esaten dizunean zure ama ez dela benetakoa adoptatua zarelako			
Ume batek iraintzen zaituenean zure azal kolorea, ilea, begiak, edo garaiera direla eta...			
Ume batek beste herrialde baten jaio zinelako hemengoak ez zarela esaten dizunean			
Ume batek adoptatua izatea txarra dela sentiarazten disuenan eta zure errua izan dela esaten disuenan.			
Ume batek adoptatua izatearen inguruan galdera deserosoak egiten dizkizunean			
Min eman dizun beste egoeraren bat.			

ZEIN ERANTZUN USTE DUZU ONGI DAGOELA ETA ZEIN OKER...

...NORBAITEK IRAINTZEN EDO HITZEKIN ERASO EGITEN ZAITUENEAN?

Gorritz margotu oker dauden erantzunak, berdez ongi daudenak (lau besterik ez daude) eta urdinez ez dakizkizunak eta aita eta amari galdetu beharrekoak.

Gertatutakoaz etxean hitz egin



Amorrua kontrolatu



Amorruetatik eta bakar-dadeetatik negar egin




Erasoak ezkutatu



Irakaslearekin gertatutakoaz hitz egin



Ikasitako guztia amorrua dela eta ahaztu



Iraintzen zaituztenean isildu



Ezer ez pentsatu



Kontrolrik gabe haserretu



Amorruak zu irabazten utzi



Negar egin



Laguntza eskatu bai nagusiei bai zure Kideei ere



Ezer ez zaitzula gertatzen esatea iraindu zaituztenean.



Irakaslea iraindu



Inork ez zaituela maite pentsatu



Jatorrizko herrialdera bueltatu nahi



Zure burua defenditzen ez dakizulako errieta jasotzearen eta aita eta ama haserretu eta triste jarriko direlaren beldur izatea.



Amorruz beteta besteak jo.



HAUTATU!

Aukera ezazu historia zaila izan duen norbait, honelako egoeren aurrean, bere burua defenditzen eta lasaiago egoten lagunduko dioten 3 erantzunak...

1. _____
2. _____
3. _____

LAGUNTZA ESKATZEN IKASTEN

ADITU:

Zer gertatu zen etxera heltzean?

Lasai, zu ez zara erruduna. Oso ondo defenditu zara eta laguntza eskatzen ikasi duzu.

Amarekin hitz egiten dudanean lasiago geratzen naiz.

Irunek esandakoa amari kontatzen badiot, berekin egoteagatik eta ezer ez erantzuteagatik egingo dit errieta. Azterketaren emaitzagatik tentela naztela ueste du... Hobe isildu eta ezer ez badut esaten... gauzak okerrago joan daitezke...

Zigortzen duten batará naiz, ez dit sinisten... bere errieta-bat, ze nazca... zenbat gorroto dudán batzuetan... egunen baten alde egingo dut...

PENTSATZEKO:

Nola eskatuko zenuke laguntza Katia, Nerea edo Ritxarri bezala iraintzen bazaituzte? Lagundu diezazukeen norabitegan pentsatu eta laguntza eskatzeko modu desberdinetan pentsatu, bata hitzekin (idatz itzazu) eta bestea hitzik erabili gabe (familiarekin saiakarak egin ea badabilen)

NORK PENTSATZEN DU ZER...?

PENTSATZEN DIREN GAUZAK...

Ritzarren pentsamenduak marra gorri batez batu, Katiarenak marra urdin batez eta Nerearenak marra berde batez. Orain badituzu buruan dituzten pentsamendu guztiak.

Aste bete zigortuko naute jolastordu gabe.

Gertatutakoak kontatzen ditudanean lanmordoa suposatzen duen arren; gero askoz lasaiago gelditzen naiz.

Amak azterketan huts egiteagatik egingo dit errieta

Horrelakoak gertatzen zaizkidan bakoitzean triste xamar jartzen naiz, ez dut ulertzen zergatik gertatzen den hau, ez da bidezkoa eta ez dira egiten duten minaz ohartzten.

Inork ez nau maite eta horrek min ematen dit.

Galdera asko egingo dizkirate eta erantzuten ez dakidanean nirekin haserretuko dira.

Aita eta amak telebista eta bideo-joko gabe zigortuko naute asteburuan zehar.

Jaio nintzen herrira bueltatzea nahiko nuke berriro ere hasteko. Horrela ditudan arazoak konpondu ahal izando nitzuke.

Kexatzeko eta defenditzeko eskubidea daukat


Triste samar nago. Ama eta aitak ez naute ulertzen, nire benetako gurasoek (biologikoeak) hobeto ulertu eta tratatuko ninduten.

Irakasleari kontazeak gelan gertatutakoaz hitz egin ahal izatea eta arazoa konpontzea ahalbidetu du.

Ez dut eskolara joan nahi badakidalako berriro ere horrelakoak gertatuko direla.

Klaseko umeek gero eta bildur eta amorru gehiago didate... inork ez du nirekin jolastu nahi.

Aita eta amak zoriondu naute laguntza eskatzeko gai izan naizelako.



PENTSATZEKO:

Nork konpondu du arazoa modu hobean? Zergatik?

Nork okertu du? Zergatik?

EGIZU ZEUK RITXAR, KATIA ETA NEREAREN KOMIKIA




NOLA EGIN DEZAKEZU:

1. Binetak koloreztatu
2. Ritxar, Katia eta Nerearen elkarrizketak eta historiak berreraiki. Zerrendako testuak erabili ditzazkezu edota zuk zeuk asmatutakoak idatzi.

Amorruz beteta beste ume bat jo zuen / irakaslea iraindu zuen / futbolean jolasten ari zela iraindu zuten / Inork ez zuela maite pentsatzen zuen.

Iraindu eta isiltzeko esan zioten / erasotzaileari hitzekin egin zion aurre / etxean gertatutakoaz hitz egin zuten / negar egin zuten eta irakaslearekin hitz egin zuten.

Errieta jasotzearen beldur zen / irakasleari ezer ez zitzaiola gertatzen esan zion / Iraindu zutenean isildu egin zen / ikasitakoa ahaztu zuten



ZER EGIN ZURE DESBERDINTASUNAK IRAITZEKO ERABILTZEN DITUZTENEAN?

ZER EGIN BESTEK GAUZA ARRAZISTAK ESATEN
DIZKIZUTENEAN EDOTA ADOPTATUA EDO BESTE
HERRIALDE BATEN JAI OA IZATEGATIK
DISKRIMINATZEN ZAITUZTENEAN?

Arrazakeria, zure ezberdintasunengatik, xenofobia beste herri baten jaiotzeagatik edota diskriminazioa adoptatua izateagatik jasan behar ez diren gauzak dira.

Nagusiei eskatu behar diezu laguntza beti, eskolan irakasleari eta etxean aita eta amari.

Irain hauek oso mingarriak dira eta besteek horrelakoak inoiz ez esatea lortu behar da.

Oso gaizki dago dezberdintasunak erabiltzea min emateko.

"Zure burua defendatzeko eskubidea duzu, iraindu eta zure dezberdintasunak min emateko erabiltzen dituzten beste umeen aurrean babestua izateko ere eskubidea duzu... iraintzen zaituztenean, zure ama eta aita garenok ere iraintzen gaituzte, eta hauxe ekiditu behar dugu... zuk bakarrik ezin duzu... aita eta amak zuk baino gauza gehiago egin ditzakete zu babesteko."



ZER EGIN ZURE DESBERDINTASUNAK IRAITZEKO ERABILTZEN DITUZTENEAN?

ZER EGIN BESTEEK GAUZA ARRAZISTAK ESATEN
DIZKIZUTENEAN EDOTA ADOPTATUA EDO BESTE
HERRIALDE BATEN JAIOA IZATEGATIK
DISKRIMINATZEN ZAITUZTENEAN?

Arrazakeriaren kontrako borroka guztion lana da.

Umeak ezin dira haienak ez diren arazoaren aurrean defendatu. Arrazakeria, xenofobia eta diskriminazioa egiten dutenaren arazoak dira eta ez jasaten dutenarenak.


Umeak ezin dute haien burua bakarka defendatu, nagusien babesa behar dute, haien gurasoena, irakasleena eta behar izanez gero polizia eta epaileak bezalako agintariena.

Arrazakeriaren biktima bazara ez zaitez isildu, ama, aita edo irakasleari esan. Ez dago besteez min egitea jasan beharrik.

Familia eta lagunekin saiakerak egin, eztabaidatu, hitz egin eta pentsa itzazu erantzuteko modu ezberdinak, jokoak kanpo ez egoteko.

Ikastetxean irakasleak dira arrazakeria ez egotearen arduradunak. Lehenengoan ez badizute kasurik egiten, ekin jaramon egin arte. Gurasoekin hitz egin eta haiek izango dira eskolari arrazakeriaren kontra jarduteko eskatuko dietenak. Zure eskubidea da.

"Ezberdintasunak dituen familia gara, baina ez gara hain ezberdinak, ezberdintasun baino berdintasun gehiago baitilugu eta besteez errespetatu gaituzten nahi dugu."



HEL BIDEAK:

Ume Alaia Bizkaia



Telefona: 688 64 92 82

Maila: umealaia@umealaiabizkaia.com

Web-a: www.umealaiabizkaia.com

Adoptia Zerbitzua



Telefona: 94.447.92.42 o 94.474.52.55

Maila: adoptia@agintzari.com

Web-a: www.adoptia.org

Bizkaiko Foru Aldundiko
Haurrentzako Zerbitzua



Telefona: 94.406.80.00

Maila: ume-infancia@bizkaia.net

Web-a: www.bizkaia.net